



Emakumeak Indian

Garapenaren eragile

Mujeres en India

MOTOR de desarrollo



ALBOAN

FETU HILKETA ETA HAUR HILKETA INDIAN

Neska Bat heztea Bizilagunaren Lorategia ureztatzea
Bezala da

Neska-hilketa, jaioberria den edota lehen urteetan dagoen neska bati heriotza eragitea da, normalki lehen bost urteetan.

Neska-fetuen hilketa, fetu batean sexu-organoak emakumezkoarenak direla zehazten denean egiten den fetuaren garapenaren etetea da.



Indiaren kasua:

Kalkulatzen da Indian haur-hilketa nahiz fetu-hilketa 48.000.000 emakumeren falta eragiten ari dela.

Azalpen-Faktoreak:

Kultura **patriarkala**, zeharkako egitura bezala ulertua, bizi-tzako eremu guztietan gauzatzeko dena eraikuntza sozial, kultural, ekonomiko, politiko, juridiko eta ideologikoen eta beste edozein motatako eraikuntzen bitartez, emakumeak desabantailazko posizioetan jartzen dituena.

Genero-rolen esleipen historikoa da, zalantzarik gabe, hori gertatzeko beste arrazoietako bat, izan ere, komunitatearen bizitzarako garrantzitsuak diren hainbat funtzio esleitu baitzaizkie gizonei tradizionalki, eta emakumeei funtzio horiek egitea eragozten zaie. Indian gizonak dira beren adinekoez edo hileta-errituez arduratzen direnak, eta emakumeek ez dute familiaren euskarri ekonomikoa ziurtatzen beren eremua etxea delako.



Ekonomia:

Garrantzitsua da ezkonsaria (dowry) kontuan izatea, batez ere herrialdeko klase ertainean oso errotuta dagoen ohitura. Hasiera batean alabak ezkontzen zirenean beren amek egiten zieten beren jabetzen transmisio bat bazen ere (ezin zuten lurrik jaso oinordetzan), gaur egun diru asko mugitzen duen negozioa da, eta esan daiteke emaztegaiari bere familiak berak ezartzen dion "salmen-ta-prezioa" dela praktikan. Kalkulatzen da Indian 1990az geroztik 20.000 emakume baino gehiago hil dituztela arrazoi horrengatik.

Maila ekonomikoan hitz eginez, umetxoen sexua jakiteko azken joerak aipatzea garrantzitsua da, sexu-fenotipoaren detekzio goiztiarrerako kliniken kopurua 1989 eta 2003 artean % 3.300 handitu baita.

Gizarte-egitura:

Praktika mota hori klase baztertuenei edo behartsuenei lotzen bazaie ere, esan behar da badirudiela berez guztiz aurkakoa gertatzen dela. Zifrarik txarrenak hiriko klase ertainetan eta emakumeek goi-mailako hezkuntza izan duten familietan ikusten dira.

Emakumeen Biziraupena:

Seme bat izateak emakumeei botere-posizioa ematen die, etorkizunean semearekin ezkonduko den errainaren amaginarreba gisa. Era horretan emakumeak posizio hierarkiko bat irabazten du familian.

Ondorioak

Emakumeen aurkako indarkeria.

Emakume-falta horrek eragin negatiboak ditu emakumeentzat eta neskentzat. Pertsona-trafikoaren gehikuntza bat ikusi da, eta zuzenean lotzen zaio emakumeen bahiketa eta bortxaketen ugaritzeari, bortxaketa horiek hainbat kasutan kolektiboak izanik.



Emakumeak Indian
Garapenaren eragile
Mujeres en India
Motor de desarrollo